

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**373/2019 Foru Agindua, irailaren 10ekoa, zeinaren bidez erabakitzen baita onespena ematea uztailaren 5eko 306/2019 Foru Aginduaren hutsen zuzenketari. Foru agindu horren bidez, ezartzen dira Arabako Lurralde Historikoko ehizaren baldintza orokorrak, zenbait espezie ehizatzeke baldintza espezifikoak, eta 2019-2020 ehiza denboraldirako baimendutako aldiak onartzea**

Uztailaren 5eko 306/2019 Foru Aginduaren bidez, ehiza espezie jakin batzuk harrapatzeke egun baliodunak onetsi ziren. Eperra eta erbia harrapatzeke aldia azaroaren 2an hasten da, baina azaroaren bata jai da. Gainera, 2020. urtea bisurtea da; hortaz, basurdea uxaldian eta oreina harrapatzeke aldia otsailaren 29ra arte luzatu behar da.

Horregatik guztiagatik, aldatu beharra dago xedapen zatitik bigarreanean erbia (*Lepus sp.*), eper gorria (*Alectoris rufa*) eta basurdea (*Sus scrofa*) harrapatzeke aldi baliodunak 2019-2020 kanpainarako ezartzen diren datak eta basurdea uxaldian harrapatu ahal izateko epea.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea uztailaren 5eko 306/2019 Foru Aginduaren hutsen zuzenketari:

Hau esan beharrean: erbia (*Lepus sp.*) eta eper gorria (*Alectoris rufa*): 2019ko azaroaren 2tik 2020ko urtarrilaren 5era, biak barne.

Beste hau esan behar du: erbia (*Lepus sp.*) eta eper gorria (*Alectoris rufa*): 2019ko azaroaren 1etik 2020ko urtarrilaren 5era, biak barne.

Hau esan beharrean: basurdea (*Sus scrofa*) 2019ko irailaren 7tik 2020ko otsailaren 28ra, biak barne.

Beste hau esan behar du: basurdea (*Sus scrofa*) 2019ko irailaren 7tik 2020ko otsailaren 29ra, biak barne.

Hau esan beharrean: 2019ko irailaren 7tik urriaren 12ra eta otsailaren 1etik otsailaren 28ra arte, uxaldian bakarrik ehizatu ahal izango da basurdea.

Beste hau esan behar du: irailaren 7tik urriaren 12ra eta 2020ko otsailaren 1etik otsailaren 29ra arte, uxaldian bakarrik ehizatu ahal izango da basurdea.

Bigarrena. Foru agindu honen hutsen zuzenketa Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko irailaren 10a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO

*Nekazaritza zuzendaria*  
M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE